

21. ikasgaia.

## **ITURRIAK ETA ARAUAK**

**1. Zuzenbide prozesala zuzenbide jurisdikzional gisa**

**2. Edukia eta kokapena zuzenbidearen esparruan**

**3. Arau organikoak eta arau prozesalak**

Zergatik da garrantzitsua bereizketa hori?

Bereizteko modua

**4. Zuzenbide prozesalaren iturriak**

Konstituzioa eta legea

Jurisprudentzia

Ohitura

**5. Arau prozesalen indarra denboran eta espazioan**

Arau prozesalen indarra denboran

Arau prozesalen indarra espazioan

**6. Lege jurisdikzionalik nagusienak**

Ordena jurisdikzional guztien legeak

## **1. ZUZENBIDE PROZESALA ZUZENBIDE JURISDIKZIONAL GISA**

Lehendabiziko ikasgaietan ikusi genuen moduan, Zuzenbide Prozesalak hiru oinarri zientifiko ditu: jurisdikzioa, akzio-eskubidea eta prozesua. Hasiera batean, doktrinak pentsatzen zuen prozesua garrantzitsuena zela, eta horregatik, jakintzagaiak Zuzenbide Prozesala du izena.

Dena den, azken bolada honetan, doktrinaren gehiengoak pentsatzen du prozesua ez dela oinarri zientifikorik funtsezkoena, jurisdikzioa baizik. Hori mantentzeko, azpimarratzen dute prozesua bitarteko bat besterik ez dela, jurisdikzioa edo Botere Judizialaren zeregina burutzeko bitartekoa, alegia.

Horrekin lotuta, esan ere egiten da jurisdikzioa -epaitzean eta epaitutakoa betearaztean datzana- Zuzenbide Prozesalaren oinarri zientifikorik esanguratsuena dela; ondorioz, jakintzagaiaren izen berria “Zuzenbide Jurisdikzionala” izan dadila proposatzen du doktrinaren zati batek, jurisdikzio kontzeptuaren garrantziak izenean bertan bere isla izan dezan.

## **2. EDUKIA ETA HAREN KOKAPENA ZUZENBIDEAREN ESPARRUAN**

Atal honetan, gogora ekarri behar dugu lehenengo ikasgaietan Zuzenbide Prozesalaren edukiari eta egiturari buruz azaldutakoa; horregatik, orain, han azaldutakoaren laburpena egitera mugatuko gara soilik.

Zuzenbide Prozesalaren barruan, hiru zati nagusi bereiz ditzakegu: zati orokorra, prozesu zibila eta prozesu penala. Zati orokorrean, funtsezko kontzeptuak aztertuko dira; batez ere, jurisdikzioari, akzioari eta prozesuari dagozkionak, eta garrantzia handia emango zaio antolakuntza jurisdikzionalari.

Prozesu zibilar dagokionez, Prozedura Zibilaren 1/2000 Legea izango da oinarria; prozesu horren barruan, hiru prozesu mota aztertuko dira: adierazpen-prozesua, betearazte-prozesua, eta kautelazko prozesua.

Prozesu penalari dagokionez, 1882ko Prozedura Kriminalaren Legea da zati horren abiaburua, eta, halaber, Zinpekoen Epaimahaiaren prozedura jorratuko da.

Horiez gain, Zuzenbide Prozesalak eduki zehatz batzuk ere baditu: konkurtso-zuzenbidea, froga-zuzenbidea, eta abar...

### **3. ARAU ORGANIKOAK (SUBSTANTIBO-MATERIALAK) ETA ARAU PROZESALAK**

Zuzenbide Prozesalaren arauak mota anitzekoak dira: batzuk organikoak edo juridiko-materialak dira, eta beste batzuk, berriz, prozesalak edo juridiko-formalak.

Bereizketa hori ezagutzea eta jakitea garrantzitsua da, adibidez, ordena zibilean ez-ohiko kasazio-helegitea jartzeko unean, gertatu den arauaren urraketak juridiko-materiala izan beharko du eta. Ordea, oraindik indarrean ez dagoen arau-hauste prozesalengatiko errekurtsua aurkeztu ahal izateko arau formal bat urratu dela argudiatu behar izango da. Kasazio-helegitea, beraz, arau substantiboen hauste batean oinarritzen da, eta arau-hauste prozesalengatiko errekurtsua, berriz, arau formaletan.

Oro har, arau organiko eta prozesalen artean bereizteko, arauaren eragina non gauzatzen den ikusi beharra dago. Horren arabera, arauak prozesuan bakarrik eragiten du, arauaren izaera prozesala izango da; eragina prozesutik kanpo izanez gero, berriz, materialtzat hartuko genuke.

### **4. ZUZENBIDE PROZESALAREN ITURRIAK**

Kode Zibileko 1. artikulua espainiar legealdiaren iturri-sistema orokorra ezartzen du, legea, ohitura, eta zuzenbidearen printzipio orokorrak izendatuz. Baina Kode Zibileko iturri-sistema hori ez da Zuzenbide Prozesalean guztiz aplikagarria izango, batez ere, eta, ikusiko dugunez, ohitura-zuzenbidearen adar horren iturri ez baita.

Atal honetan, batez ere, **Konstituzioa eta legeak** aipatuko ditugu. Gainera, legeen kasuan, lege organikoak zein lege arruntak ditugu Zuzenbide Prozesalean (adibidez, Botere Judizialaren Lege Organikoa eta Prozedura Zibileko Legea, hurrenez hurren).

Horrez gain, iturri gisa, **jurisprudentzia** ere badugu, baina, doktrinaren ustez, oso arazotsua suertatzen da gai hori, benetako iturria den edo ez guztiz argi ez baitago. Jurisprudentzia, berez, ez da iturri bat ("Common Law" Estatuetan gertatzen ez den moduan), baina jakin badakigu oro har Konstituzio Auzitegiak eta Auzitegi Gorenak egindako interpretazioek lotesteko indarra dutela, eta, ondorioz, ikuspuntu horretatik, interpretazioak ere iturriak izango dira.

Bukatzeko, **ohiturari** buruz esaten da inoiz ez dela Zuzenbide Prozesaleko iturria izango; izan ere, Zuzenbide Prozesaleko arauak epaitegi eta auzitegietan aplikatzen direnez, ondorioztatzen da ohiturarik sortzea ezinezkoa dela. Hau da, ikuspuntu juridiko batetik, zera da ohitura: gizartean pertsonak sarritan espontaneoki sortzen duten egintzaren ondorioa, eta Zuzenbide Prozesaleko egintzak, ordea, auzitegietan gauzatzen dira, legeak berariaz ezartzen duten moduan. Horrenbestez, ezinezkoa da auzitegien esparruan inolako ohiturarik sortzea (ikuspegi juridikotik, noski).

## **5. ARAU PROZESALEN INDARRA DENBORAN ETA ESPAZIOAN**

**Denborari** dagokionez, arau prozesalen atzeraeraginkortasun eza aldarrikatzen da (legeak berariaz bestelakorik ezartzen duen kasuetarako izan ezik), eta hala dio Prozedura Zibileko Legearen 2. artikulua. Ondorioz, prozesua eta haren baitan burutu beharreko egintzak momentuan indarrean dauden araei jarraituz burutuko dira; hau da, aplikatu behar da prozesua hasteko unean indarrean zegoen arautegia.

Hala ere, hain argia dirudien ezaugarri hori arazotsua bihur daiteke zuzenbide iragankorrari dagokionez, momentu jakin batean aldarrikatu berria den lege bat eta aurretik zegoenaren arteko gatazka sor daiteke eta. Kasu

horietan, legegileak aukera edo irteera ezberdinak bila ditzake kasu zehatz bakoitzerako, eta 1/2000 Prozedura Zibilaren Legea har dezakegu horren adibide gisa.

Lege hori 2001eko urtarrilaren 1ean indarrean jarri zen arren, data horren aurretik aurkeztutako demandak aurreko legearen izapidearen bitartez ebatzi behar izan ziren, eta, orobat, aurreko legearen bitartez izapidetzen ari ziren prozesuak eta data horren aurretik jarritako helegiteak. Baina aurreko legearen izapidetzea erabiltzeari uzteko muga nonbait jarri beharko da; epaian aurkituko dugu muga hori; hau da, lehendabiziko auzialdian epai bat emanaz gero –edo helegite baten ebazpena emanaz gero-, eta horren ostean epaiaren aurka errekurtsio bat jarri nahi bada, errekurtsioaren izapidetzea 1/2000 Legearen arabera izango da (ikus PZLaren xedapen iragankorrak).

**Espaziori** dagokionez, Prozedura Zibilaren Legearen 3. artikuluz mintzatu beharra dago, horrek esaten baitu Espainiako auzitegiek beti Espainiako arau prozesalak aplikatu behar dituztela, beti ere salbuespen batekin: nazioarteko hitzarmen eta itunek horri buruz ezartzen dutena. Artikulu horretan, beraz, lege prozesalen lurralde-printzipioa aldarrikatzen da.

Are gehiago, Espainiako auzitegi batek beste Estatuko auzitegi batentzat laguntza judizialeko egintzaren bat egin beharko balu, Espainiako legeen arabera egin beharko luke, nahiz eta laguntza hori eskatzen duen organoa atzerrikoa izan.

Noski, arau organikoak ere -hots, organo jurisdikzionalak eratu eta beren kideen estatutua zehazten dutenak- Estatukoak izango dira .

## **6. LEGE JURISDIKZIONALIK NAGUSIENAK**

Zuzenbide Prozesalaren arautzeari begira, esan beharra dago ez dugula gorputz bakar batean aurkituko, hainbat legetan sakabanatuta baizik. Horien artean, batzuek era orokorrean arautuko dute Zuzenbide Prozesala; beste batzuek, berriz, prozesu zehatzak izango dituzte objektu.

Arautze orokor hori egiten duten legeen artean, besteak beste, honako hauek topa ditzakegu: Botere Judizialaren Lege Organikoa, Doako Laguntza

Juridikoaren Legea, Mugapen eta Zoru Judizialen Legea. Prozesu zehatzak arautzen dituzten legeen artean, berriz, honako hauek aipatuko ditugu: Prozedura Zibilaren Legea, Prozedura Kriminalaren Legea, Zinpekoen Epaimahaiaren Legea, Lan Prozeduraren Legea eta Administrazioarekiko Auzien Legea. Azken horien artean, antzeman daitekeenez, azpimarra dezakegu ordena jurisdikzional bakoitzak bere arautze prozesala duela.